

altza

Laugarren Sendotza Eguna

altza inguruko elizbarrutiek jende ugari bildu zuten joan den igandean Sendotza Eguna zela eta. 400 bat lagun bildu ziren San Jose Ikastetxe Publikoan, Eraikuntza Eskolan, Altzako Institutuan eta San Martzial elizan sendotza eguna ospatzeko ekintzetan parte hartzeko. Besteak beste, futbola, eskubaloia, saskibaloia eta elizbarrutien arteko soka-tira egin ziren.

Hirugarren Munduari laguntzaz arduratzen den «Lagunok» taldeak, bazkaria prestatu zuen eta bazkal ostean, «Egusentia» musika taldeak kontzertua eskaini ondoren, sendotza talde bakoitzak bere espektakulua taularatu zuen. Aurtengoa, herrikuntzak kartel, olerki eta idazketa txapelketak izan dira.

Parte hartzaile guztiak diploma bana jaso zuten eta lema ugari prestatu zen Sendotza egun honetarako adibidez «*zuk ere baduzu zeure lekua*».

Sendotza Eguna duela 4 urte hasi ziren ospatzen San Jose, San Martzial eta San Pablo elizbarrutien artean, sendotza taldeetako partaide eta gazteak elkar ezagutzeko xedez. Aurten zazpi izan dira Sendotza Egun honetan parte hartu duten elizak, Altzakoetz gain, Larratxo, Trintxerpe eta Herrerako gazteek ere zeresanik izan baitute.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON



Altza inguruko elizek antolatzen duten Sendotza Egunean 400 lagunek hartu zuten parte, hainbat kirol txapelketan eta bazkarian.

herrera

Mozkor Frentekideen ligaren finala

asteburn honetan kirol ekintza garrantzitsua izango da gure auzoan, hain zuzen Mozkor Frentekideek antolatutako VIII Liga Txapelketari amaiera emango zaio. Urriaren 8an hasitako txapelketa honek komeri ugari izan du, baina partaideak prest izan dira larunbatero gure frontoian paleta gomaz jokatzeko.

Duela urte batzuk bi mailatan banatuta antola-

tzen hasi zen txapelketa honetara baditu aurtengo finalistak. Larunbatean, apirilaren 1ean, lau bikotek jokatu dute Herre-rako frontoian.

Lehenengo mailan *Kakati-Lumbagos*, *Bla...Bla-Kanitoren* aurka arituko dira. Norgchiagoka honetarako, bigarren bikotek apustuak bere alde ditu. Bigarren mailan *Txuti-Popi* (iazko irabazle-

ak), *Cartujo-Kawasakiren* aurka arituko dira eta kasu honetan apustuak lehenengo bikotearen alde izango dira. Apostulari guztiak martxan jarri dituzte dagoeneko txartelak.

Urtero bezala, eguerdiko 12.00etan pilota partidua eten egingo da apai-zak Angelusa erreza dezan. Azkenik sariak banatuko zaizkie irabazle eta partaide guztiei.